

**Ebazpena: R019/2023**

**Espedientea: 46/2015**

Vitoria-Gasteizen, 2023ko martxoaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofia Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, hau erabaki du:

## **ERABAKIA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean, GFA) Nafarroako Lurralde Ogasunaren (aurrerantzean, NLO) aurrean planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita ACRBSLU zergapekoaren —lehen, UB izena zuen— zerga-egoitza zehaztea, eratu zenetik (2012ko urriaren 23a). Gatazka hori zeina Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 46/2015 espediente-zenbakiarekin.

## **I. AURREKARIAK**

1.- UB 2012ko urriaren 23an eratu zen Iruñean, era guztietako eraikinak, urbanizazioak eta obra publikoak eraikitzeko xedearekin.

Donostiako (Gipuzkoa) P kaleko 51. zenbakian ezarri zuen zerga-egoitza.

2014ko abenduaren 1ean, zerga-egoitza aldatu zuen Donostiako P kaleko 45. zenbakira.

2015eko urtarrilaren 22an, jakinarazpenetarako helbidea finkatu zuen Iruñeko (Nafarroa) A kalean.

**2.-** Bazkide bakarra ACRRSSLU da —lehen, SRYMSL zeritzon—. Zerga-egoitza Aizoainen du (Nafarroa), eta jakinarazpenetarako helbidea Iruñeko (Nafarroa) A kalean; 2005etik dihardu lanean.

SRYMSLren administratzaile bakarra ACRGGSL zen (egoitza: Aizoain, Nafarroa), eta FJSM jauna izendatu zuen karguan aritzeko pertsona fisiko.

2014ko azaroaren 4an, administratzaile solidario izendatu ziren ACRGGSL, SL eta PAMPSSA (horiek ere Aizoainen dute egoitza).

**3.-** UBk 2014ko maiatzetik urrira arteko aldiari zegokion BEZa itzultzeko eskatu zuela-eta, GFAk zenbait jakinarazpen bidali zituen, baina ez zitzaien erantzun, eta, beraz, zerga-egoitza egiaztatzeko prozedura hasi zen.

**4.-** GFAk bi bisita egin zituen zergapekoaren zerga-egoitzara 2015eko otsailaren 17an eta 24an.

Errolda-egiaztapenaren prozeduran zerga-garrantzia duten inguruabar hauek egiaztatu ziren:

a.- MOU jaunak, UBko langilea den aldetik, honako hau esan du:

- SRYMSLren ordezkaritza hutsa da.

- Bulegoan ez dago UBko ahalordedunik.

- Gerentea (FDDG jauna) eta finantza-zuzendaria (MACM jauna) SRYMSLko gerente eta finantza-zuzendari ere badira, eta oso noizbehinka baino ez dira joaten bulegora.

b.- MACM jaunak, UBko ahalordeduna den aldetik, honako hau esan du:

- Hain zuzen ere, UBren kasuan bakarrik jarduten du SRYMSLk lurralde batean beste sozietate baten bitartez, eta arrazoia zera da, Eibarren (Gipuzkoa) 15 atariren jabeen erkidego bat birgaitzeko obra handi bat egitekoa zela.

- Enpresaren kudeaketaz eta zuzendaritzaz FDDG jauna arduratzen da, eta Iruñean bizi da.

- Obretan erabiltzeko materialaren kontratazioa P kaleko bulegoko langileek egiten dute, salbu eta kontratu bat formalizatu behar denean, kasu horretan gerentea arduratzen baita.

- Fakturak Iruñetik igortzen dira.

- Zerga-aitorpenen artxiboak eta kopiak Iruñean gordetzen dira.

- Enpresaren jabetzako ibilgetua bulegoko altzariak eta bi ibilgailu dira.

Hori oinarri hartuta, GFAk txosten bat egin zuen 2015eko maiatzaren 4an, eta han adierazi zuen UBren zerga-egoitza Nafarroan egon zela beti.

**5.-** 2015eko maiatzaren 5ean, GFAk NLOri proposatu zion UBren zerga-egoitza aldatzea, eratze-datara arteko atzeraeraginezko ondorioekin.

**6.-** NLOk txosten bat prestatu zuen zergapekoaren zerga-egoitzari buruz, eta, bertan, zergetan eragina duten inguruabar hauek hartu ziren kontuan:

- a.- UB ez dago NLOren datu-basean, ezta haren egoitzarik ere.
  - b.- SRYMSL enpresak ez du jarduera eten, eta ez da Gipuzkoara joan.
  - c.- SRYMSLren webgunean Gipuzkoan UB izena hartu zuela ageri da.
  - d.- Sozietateak ez dio zerga-aitorpenik aurkeztu NLOri.
  - e.- Sozietateak ez du ondasun higiezinik Gipuzkoan.
  - f.- Telefonicaren web-orrian ez dago sozietatearen izeneko telefono-zenbakirik Nafarroan, ezta Gipuzkoan ere. Hala ere, Interneteko zenbait orrialdetan jaso denez, 943XXXXXX telefono-zenbakia SRYMSL Reformas y Mantenimiento sozietateak Gipuzkoan duen ordezkarietakoa da, baina sozietateak ez du establezimendurik Gipuzkoan.
- Telefono-zenbaki hori bera agertzen da FDDGren, zuzendari gerentearen, eta JMRren —UBko merkataritza-arduraduna— bisita-txarteletan. Aipatutako agerraldian eman zizkion MACek NLOri.
- g.- Enpresaren ordezkariak Gipuzkoako bulegora atxikitako langileen zerrenda aurkeztu zuten, langile teknikoak osatua.

MACM jaunak adierazpen hauek egin zituen bere agerraldian:

a.- UBko merkataritza-arduraduna JM jauna da, eta ACRGGSLko merkataritza-zuzendaria ere bada. JM jauna astero joaten da Donostiara bezeroekin eta hornitzaileekin jardutera.

b.- UBko gerentea FDDG jauna da, eta ACRGGSLko gerente ere bada.

Gerenteak kontratu guztiak Gipuzkoan sinatzen ditu bezeroekin.

c.- Kontabilitatea eta fakturen jaulkipena Iruñean egiten da.

d.- Akziodunen batzar guztiak Donostian egiten dira.

2015eko abuztuaren 26an, NLOk uko egin zion zerga-egoitza aldatzeko proposamenari

7.- NLOren erantzuna ikusita, GFAk egiaztapen sakonagoa egin eta zerga-egoitza beste behin bisitatu zuen 2015eko abuztuaren 31n. Bisita hartan, PJI jaunak hau azaldu zuen:

a.- Giza baliabideak Iruñean zentralizatuta daude.

b.- Erabakiak Iruñean hartzen dira, eta zer hornitzaileekin lan egingo den ere han erabakitzen da.

c.- Ez da ohikoa arduradunak Donostiara joatea, eta bilerak telematikoki egiten dira.

d.- Kontratuen sinadura Iruñean zentralizatuta dago.

e.- Gipuzkoan ez dago komertzialik.

f.- Bezeroekiko eta hornitzaileekiko harremanak Iruñean eramaten dira, kobrantzak eta ordainketak barne.

2015eko irailaren 2an, beste bisita bat egin zen zerga-egoitzara, eta MO jaunak hartu zituen egiaztatzaileak. Hiru lan-kontratu aurkeztu zituen, obrako ofizialei zegozkienak, eta hau eman zuen aditzera:

a.- Langileek ez dute erabakitzeko inolako ahalorderik.

b.- Obren jarraipena Iruñetik egiten da.

c.- FDDGk sozietatea ordezkatzeko ahalordea du zenbateko jakin batera iristen diren kontratuetan. Ahalordearen kopia aurkeztu zuen.

8.- 2015eko irailaren 23an, GFAk 46/2015 gatazka planteatu zuen, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu da.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### 1.- Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen eskumena

Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

*c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.*

### 2.- Zergapekoaren zerga-egoitza

Lehenik eta behin, aipatu behar da desoreka argia dagoela GFaren egiaztapen-lanaren eta NLOk egindakoaren artean; izan ere, GFAk lau bisita egin ditu zergapekoaren zerga-egoitzara.

Bisita horietan, GFAko langileek UBko zenbait langileren eta MAC jaunaren (ahalordeduna) deklarazio espontaneoak lortu dituzte. Adierazi dutenez, negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza Nafarroan gauzatzen da.

Hori indartu egiten dute honako egitatezko inguruabar hauek:

a.- 2016tik aurrera, UBk ez du eragiketarik, SRYMSLk jarduera-alta eman zuen Gipuzkoan, eta Gipuzkoako lurraldean egiten dituen eragiketei dagozkien autolikidazioak aurkeztu zituen.

2012tik 2014ra, SRYMSLk jarduera Gipuzkoako lurraldean egiten zuela adierazten zuen zentsu-aitorpena aurkeztu zuenez, pentsatzekoa da bi sozietateek jarduera bera egiten zutela lurralde berean (eta bulego berean, SRYMSLren plaka bat ere bazegoen eta); hala eta guztiz ere, SRYMSLk ez zion autolikidaziorik aurkeztu GFari.

Dirudenez, horrek frogatzen du, zentsu-aitorpenetatik harago, SRYMSLk eta UBk ez dutela aldi berean jarduera bera egiten Gipuzkoan, baizik eta SRYMSLk bere jarduera Gipuzkoan egiteko duen tresna dela UB.

b.- GFAk SRYMSLren esku-hartzeak UBren jardueran duen garrantzia egiaztatzen duen dokumentazio ugari aurkeztu du (adibidez, bulegoa garbitzeko kontratuak, aurrekontuak jasotzeari eta fakturak kobratzeari buruzko dokumentuak eta abar).

c.- Gerentea, FDDG jauna, ez da UBko langilea, SRYMSLkoa baizik.

d.- Kontratu guztiak Iruñeko epaitegi eta auzitegietara bidaltzen dira gatazkak ebazteko.

e.- IG jauna, UBko obraburua, SRYMSLko langilea da.

f.- 2014ko urtarrilaren 2an, UBk kontratu bat sinatu zuen SRYMSLrekin. Kontratu horren bidez, SRYMSLk aholkularitza ekonomikoko, teknikoko, kontableko, juridikoko, finantzarioko eta fiskaleko zerbitzuak ematen dizkio.

Hala ere, aurreko urteetan ere ematen ziren zerbitzu horiek guztiak, kontzeptu horretan egindako ordainketek egiaztatzen dutenez.

g.- UBko bazkide bakarrak, administratzaileak eta ahalordedunak Nafarroan dute zerga-egoitza.

Aurkeztutako frogen azterketa orokorretik ondoriozta daiteke ACRGGSL eta SRYMSL arduratzen direla UBren kudeaketaz eta administrazioaz, Nafarroatik, beren langileen bitartez, eta UB, nortasun juridiko propioa izan arren, SRYMSLren jarduera Gipuzkoako lurraldean garatzeko tresna hutsa dela.

Egiaztatzen denez, P kaleko bulegoan ez dago kontratazio arruntik, ez zaie arretarik ematen bezeroei eta hornitzaileei, eta sozietatea ez da bertatik administratzen.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe



## **ERABAKITZEN DU**

- 1.- ACRBSLUren zerga-egoitza eratu zenetik Nafarroan dagoela adieraztea.
- 2.- Erabaki hau jakinaraztea Nafarroako Lurralde Ogasunari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta ACRBSLUri.